



# NAFARROAKO PARLAMENTUKO

## ALDIZKARI OFIZIALA

VII. legegintzaldia

Iruña, 2009ko martxoaren 5a

15. ZK.

### A U R K I B I D E A

#### A SAILA:

##### **Foru lege proiektuak:**

—Foru Lege proiektua, Nafarroako Gizarte Hezitzaileen Elkargo Ofiziala sortzen duena. Aurkeztutako zuzenketak (3. or.).

#### C SAILA:

##### **Bestelako proposamenak:**

—Lege proposamena, Hauteskundeetako Araubide Orokorri buruzko ekainaren 19ko 5/1985 Lege Organi-koaren 50. artikulua aldatzekoa. Osoko Bilkurak onetsia (4. or.).

#### E SAILA:

##### **Jabeldurak, mozioak eta adierazpen politikoak:**

—Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da eskola- eta gizarte-laguntza plan bat presta dezan 0tik 3 urtera bitarteko haurrentzat. Osoko Bilkurak onetsia (5. or.).

—Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Nafarroako Ospitaleko larrialdietarako zerbitzuaren proiektua berriro landu eta/edo birmolda dezan, halako moduz non azpiegitura berean bilduko diren Nafarroako Ospitaleko eta Bideko Ama Birjinako larrialdietarako zerbitzuak. Osoko Bilkurak onetsia (6. or.).

—Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da espedientea has dezan Radio Universidad de Navarra eta Medios de Comunicación 21 enpresei irriati-hedapenaren zerbitzua kudeatzeko emandako administrazio-emakidak hutsaltzeko, lizentzia ematerakoan beren gain hartutako betekizun eta betebeharen ez-betetze larrien ondorioz. Osoko Bilkurak onetsia (7. or.).

—Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da herritarrak artatzeko bulego orokor bat jar dezan Tuteran. Osoko Bilkurak onetsia (8. or.).

—Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Vinsak sustatu edo kudeatzen dituen etxebizitzien alokairuaren prezioa eskatzailearen errenta-ahalmenaren arabera ezar dezan. Osoko Bilkurak onetsia (8. or.).

- Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da bidezubi berri bat eraiki dezan Isoko mendatearen hegoaldean, gaur egun Orradre-Napaleko bidegurutzean dagoen zubiaren ordez. Osoko Bilkurak onetsia (9. or.).
- Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da azterlan eta hausnarketa bat egin dezan eta Parlamentura igor dezan, hutsik dauden etxebizitza eraikiak babes ofizialeko etxebizitzaren araudian sartze-ari buruz. Osoko Bilkurak onetsia (9. or.).
- Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da beharrezkoak diren zuzemenak eta negoziazioak egin ditzan Audenasarekin, Imarkoaingo bidesari-postua tokiz aldatzeko eta N-121 errepideko bidegurutzetik gorago jartzeko. Osoko Bilkurak onetsia (10. or.).
- Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da lan prekarietatearen aurkako eta enpleguaren kalitatearen aldeko plan bat presta dezan gizarte zerbitzuen sektorerako. Osoko Bilkurak onetsia (10. or.).
- Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da datozen urteetan nabarmen handitu ditzan osasun sistema publikoaren arloko gastua eta inbertsioa finantzatzeko aurrekontu-baliabideak. Osoko Bilkurak onetsia (11. or.).
- Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Foru Lege proiektu bat igor dezan, zeinean beharrezkoak diren xedapenak jasoko baitira, Lehendakaritza, Hezkuntza eta Gizarte Ongizateko departamentuen mende lan egiten duten administrazioko osasun arloko diplomatu finko guztiak, 8/2008 Foru Legetik kanpo geratu zirenak, bertan sar daitezten. Osoko Bilkurak bazter utzia (11. or.).
- Nafarroako Foru Eraentza Berrezarri eta Hobetzeari buruzko Lege Organikoa aldatzeko oinarriak aztertu eta onesteko lan-taldea. Foru Araubideko Batzordea Batzordeak bazter utzia (12. or.).

---

**A saila:**  
**FORU LEGE PROIEKTUAK**

---

## **Foru Lege proiektua, Nafarroako Gizarte Hezitzaileen Elkargo Ofiziala sortzen duena.**

### *AURKEZTUTAKO ZUZENKETAK*

Legebiltzarreko Erregelamenduko 129. artikuluan ezarritakoa betez, Nafarroako Gizarte Hezitzaileen Elkargo Ofiziala sortzen duen Foru Lege proiektuari aurkezturiko zuzenketak Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara daitezzen agindu dut. Proiektu hori 2009ko otsailaren 4ko 5. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2009ko otsailaren 27an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

### **1. ZUZENKETA**

**UNIÓN DEL PUEBLO NAVARRO,  
NAFARROA BAI ETA  
SOCIALISTAS DEL PARLAMENTO  
DE NAVARRA  
PARLAMENTU-TALDEEK ETA  
NAFARROAKO DEMOKRATEN ELKARGUNEA  
ETA IZQUIERDA UNIDA DE NAVARRA-  
NAFARROAKO EZKER BATUA  
FORU PARLAMENTARIEN  
ELKARTEEK AURKEZTUA**

Beste xedapen gehigarri bat, lehena, gehitzeko zuzenketa. Hau da proposatzen dugun testua:

Gaztelaniazko testuan, "Educadoras" hitza agertzen den guztietan, "Educadores" ere agertuko da.

Zioak: Beste zuzenketaren bidez izenburuan proposatutako aldaketarekin bat etortzeko.

### **2. ZUZENKETA**

**UNIÓN DEL PUEBLO NAVARRO,  
NAFARROA BAI ETA  
SOCIALISTAS DEL PARLAMENTO  
DE NAVARRA  
PARLAMENTU-TALDEEK ETA  
NAFARROAKO DEMOKRATEN ELKARGUNEA  
ETA IZQUIERDA UNIDA DE NAVARRA-  
NAFARROAKO EZKER BATUA  
FORU PARLAMENTARIEN  
ELKARTEEK AURKEZTUA**

Izenburua aldatzeko zuzenketa. Hau da proposatzen dugun testua:

Gaztelaniaz hala esanen du: "Proyecto de Ley Foral por la que se crea el Colegio Oficial de Educadores y Educadoras de Navarra"

Zioak: Gizarte-hezitzaileen Elkargo Ofiziala ez dago autonomia erkidego guztietan. Elkargoa eratu den erkidegoetan, gaztelaniaz "Colegio Oficial de Educadoras y Educadores Sociales" deitu ohi zaio. Hala gertatu da Valentzian, Euskal Autonomia Erkidegoan, Gaztela eta Leónen, Aragoian eta Galizian. Elkargo Ofizialen Kontseilu Nagusiak ere izen hori hartu du: "Consejo General de Colegios Oficiales de Educadoras y Educadores Sociales".

Gure ustez, arrazoizkoa da Nafarroako elkar-goak ere izen hori izatea gaztelaniaz.

---

**C saila:**  
**BESTELAKO PROPOSAMENAK**

---

## **Lege proposamena, Hauteskundeetako Araubide Orokorrari buruzko ekainaren 19ko 5/1985 Lege Organikoaren 50. artikulua aldatzekoa.**

### *OSOKO BILKURAK ONETSIA*

Nafarroako Parlamentuak, 2009ko otsailaren 26an egindako Osoko Bilkuran, Hauteskundeetako Araubide Orokorrari buruzko ekainaren 19ko 5/1985 Lege Organikoaren 50. artikulua aldatzeko Lege proposamena onetsi zuen, Kongresuaren Mahaira bidaltzeko, Konstituzioaren 87.2 artikulua xedatutakoarekin bat.

Lege proposamena Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut.

Iruñean, 2009ko martxoaren 3an

Lehendakaria: Rafael Gurrea Induráin

### **Hauteskundeetako Araubide Orokorrari buruzko ekainaren 19ko 5/1985 Lege Organikoaren 50. artikulua aldatzeko Lege proposamena**

#### **ZIOEN AZALPENA**

Hauteskundeen araubide orokorrari buruzko ekainaren 19ko 5/1985 Lege Organikoak hauteskunde kanpainako ekitaldiak arautzen ditu, eta behar diren neurriak ezartzen, halaber, botere publikoek kanpainan interferentziarik ez sortzeko eta hautesle botoa alde batera ez bideratzeko. Bereziki ezartzen da hautagaiez, alderdi politiko- ez, federazioez, koalizioez edo eta hautesle-taldez beste inongo pertsona juridikok ezin izanen duela hauteskunde kanpainarik egin, hau da, sufragoak erakartzera bideratutako zilegizko jarduerarik, hauteskundeetarako deialdia egiten den egunetik aurrera, betiere Konstituzioan aitorturiko adierazpen askatasunerako eskubidea (lege organiko 50. artikulua) ukatu gabe.

Ezarritako horiek gorabehera, ohikoa da hauteskundeak egin aurreko hil eta asteetan adminis-

trazio publikoak obra, eraikin edo zerbitzu publiko ugari inauguratzen, obretako lehen harriak jartzen edo antzekoetan aritzea. Jarduera horrek eragin bat izaten du herritarrengan; izan ere, iruditzen zaie arduradun politikoek nahita bilatzen dutela hauteskunde-deialdiak hurbil daudenean halakoe- tan aritzea, hauteskunde horietako emaitzetan eragiteko, betiere baliabide publikoak erabiliz her- tsiki alderdietakoak diren interesen alde.

Aipatu ekitaldietako benetako arrazoen inguru- ko eta baliabide publikoen erabilera zuzenaren inguruko herritarren susmo guztiak desagerraraz- teko, eta jarduera horiek eta hauteskunde-proze- suak ongi bereizteko, hain zuzen ere haien erre- gularitasuna eta gardentasuna bermatze aldera, bidezkoa da hauteskundeak arautzen dituzten xedapenei beste bat eranstea; haren bidez, berari- az debekatuko dira ekitaldi horiek hauteskunde- tarako deialdia egiten den egunetik hauteskunde- en egunera arte.

#### **Artikulu bakarra.**

Hauteskundeetako Araubide Orokorrari buruz- ko ekainaren 19ko 5/1985 Lege Organikoaren 50. artikuluari 4. idatz zatia gehitu zaio. Hona testua:

“4. Hauteskundeetarako deialdia egiten duen dekretuaren egunetik hauteskundeak egiten diren egunera arte, hauteskunde prozesuaren eragin- eremuan eskumenak dituzten administrazio publi- koek ez dute obra, eraikin edo zerbitzu publikoei buruzko inaugurazio ekitaldirik egiten, ez eta lehen harria jartzeko ekitaldirik ere.”

#### **Azken xedapena.**

Lege organiko honek Estatuko Aldizkari Ofizia- lean argitaratu eta biharamunean hartuko du inda- rra.

---

**E saila:**  
**JABELDURAK, MOZIOAK ETA ADIERAZPEN POLITIKOAK**

---

**Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da eskola- eta gizarte-laguntza plan bat presta dezan Otik 3 urtera bitarteko haurrentzat.**

*OSOKO BILKURAK ONETSIA*

Nafarroako Parlamentuko Osoko Bilkurak, 2009ko otsailaren 26an egindako bileran, ondoko erabakia onetsi zuen: "Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da eskola- eta gizarte-laguntza plan bat presta dezan Otik 3 urtera bitarteko haurrentzat".

Legebiltzarreko Erregelamenduko 113. artikuluan ezarritakoa betez, aipatu erabakia Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut.

Iruñean, 2009ko martxoaren 3an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

**Erabakia. Horren bidez,  
Nafarroako Gobernua premiatzen  
da eskola- eta gizarte-laguntza plan  
bat presta dezan Otik 3 urtera  
bitarteko haurrentzat**

Nafarroako Parlamentuak Hezkuntza Departamentua premiatzen du Otik 3 urtera bitarteko haurren hezkuntza eta laguntza plana presta dezan. Planak ondokoak jasoko ditu:

1. Ikastetxeen sarea hedatzea, toki entitateekin lankidetzan, familien eskariari erantzuteko. Toki entitateak finantzatzeko irizpideak berrikusiko dira, ziklo hori ezartzen laguntzeko.

2. Biztanle gutxiko landa eremuetan hezkuntza-zerbitzua emateko moduak aztertzea, ondokoak helburu: haur guztien aukera berdintasuna bermatzea, familiei bertan finkatzen eta gelditzen laguntzea eta landa eremuei garatzen laguntzea.

3. "Hezkuntza-guneak" sortzeko aukera aztertzea, hau da, Otik 3 urtera bitarteko ikastetxeak eraikitzea haur eta lehen hezkuntzako bigarren zikloko ikastetxeen alboan, baliabideak aprobetxatzeko eta familiei seme-alaben hezkuntza-bizitzan parte har dezaten laguntzeko. Otik 3 urtera bitarteko ikastetxeak lehen hezkuntzako ikastetxeekin batera egin litezke, berriak eraiki behar direnean.

4. Otik 3 urtera bitarteko ikastetxeak lan-inguru-neetan jartzeko aukera aztertzea: merkataritza eremuak, ospitale, industria, unibertsitate eremuak eta abar.

5. Jarduketa berariazkoak garatzea, ziklo horretan eskolatzeko eskari handiena duten herrietan.

6. Otik 3 urtera bitarteko dekretutik kanpo gelditu diren establezimenduak arautzea, uste baitugu ahalik eta gehien babestu behar direla haur txikiak artatzeko baldintzak.

7. Hitzarmen marko bat egitea, mailari egokitu, haur eskoletako langile guztientzat.

8. Prestakuntza plan berariazkoak garatzea, Otik 3 urtera bitarteko ikasle hezkuntzaz eta laguntzaz arduratuko diren profesionalentzat.

**Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Nafarroako Ospitaleko larrialdietarako zerbitzuaren proiektua berriro landu eta/edo birmolda dezan, halako moduz non azpiegitura berean bilduko diren Nafarroako Ospitaleko eta Bideko Ama Birjinako larrialdietarako zerbitzuak.**

*OSOKO BILKURAK ONETSIA*

Nafarroako Parlamentuko Osoko Bilkurak, 2009ko otsailaren 26an egindako bileran, ondoko erabakia onetsi zuen: "Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Nafarroako Ospitaleko larrialdietarako zerbitzuaren proiektua berriro landu eta/edo birmolda dezan, halako moduz non azpiegitura berean bilduko diren Nafarroako Ospitaleko eta Bideko Ama Birjinako larrialdietarako zerbitzuak".

Legebiltzarreko Erregelamenduko 113. artikuluan ezarritakoa betez, aipatu erabakia Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut.

Iruñean, 2009ko martxoaren 3an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

**Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Nafarroako Ospitaleko larrialdietarako zerbitzuaren proiektua berriro landu eta/edo birmolda dezan, halako moduz non azpiegitura berean bilduko diren Nafarroako Ospitaleko eta Bideko Ama Birjinako larrialdietarako zerbitzuak**

1. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du Nafarroako Ospitaleko larrialdietako zerbitzuaren proiektua birpentsa dezan eta/edo neurri berriak eman diezazkion, halako moduz non azpiegitura berean bilduko diren Nafarroako Ospitaleko eta Bideko Ama Birjinako larrialdietako zerbitzuak.

2.- Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du mozio hau onetsiz gero batzorde bat sor dezan, non gutxienez parte hartuko duten Nafarroako Ospitaleko eta Bideko Ama Birjina Ospitaleko larrialdietarako zerbitzuetako langileak, zerbitzu horiek bategiteari buruz eztabaidatu eta erabakiak hartzeko.

3.- Halaber, Gobernua premiatzen da mozio hau onetsi eta 30 eguneko epean Osasun kontseilari Kutz andreak jakinaraz diezaien Osasun Batzordeko kideei nork osatuko duen aipatu batzordea.

**Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da espedientea has dezan Radio Universidad de Navarra eta Medios de Comunicación 21 enpresei irrati-hedapenaren zerbitzua kudeatzeko emandako administrazio-emakidak hutsaltzeko, lizentzia ematerakoan beren gain hartutako betekizun eta betebeharren ez-betetze larrien ondorioz.**

**OSOKO BILKURAK ONETSIA**

Nafarroako Parlamentuko Osoko Bilkurak, 2009ko otsailaren 26an egindako bileran, ondoko erabakia onetsi zuen: "Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da espedientea has dezan *Radio Universidad de Navarra* eta *Medios de Comunicación 21* enpresei irrati-hedapenaren zerbitzua kudeatzeko emandako administrazio-emakidak hutsaltzeko, lizentzia ematerakoan beren gain hartutako betekizun eta betebeharren ez-betetze larrien ondorioz."

Legebiltzarreko Erregelamenduko 113. artikuluan ezarritakoa betez, aipatu erabakia Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut.

Iruñean, 2009ko martxoaren 3an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

**Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da espedientea has dezan Radio Universidad de Navarra eta Medios de Comunicación 21 enpresei irrati-hedapenaren zerbitzua kudeatzeko emandako administrazio-emakidak hutsaltzeko, lizentzia ematerakoan beren gain hartutako betekizun eta betebeharren ez-betetze larrien ondorioz**

Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du:

1. Beharrezkoak diren zuzemenak egin ditzan Radio Universidad de Navarra eta Medios de Comunicación 21 irratiek emakidaren baldintza guztiak betetze aldera, eta, bereziki, Nafarroako Ikus-entzunezkoen Kontseiluak atzemandako irregulartasunak konpontze aldera.

2. Emakide-hartzaileek ez badituzte hartzen beharrezkoak diren neurriak hilabeteko epean, Gobernua premiatzen da formalki eska diezaien emakidaren baldintza guztiak betetzeko, eta, bereziki, Nafarroako Ikus-entzunezkoen Kontseiluak atzemandako irregulartasunak konpontzeko.

3. Behin eskatuta, jarrera bera izaten jarraituko balute, Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du espedientea has dezan Radio Universidad de Navarra eta Medios de Comunicación 21 enpresei irrati-hedapenaren zerbitzua kudeatze aldera emandako administrazio-emakidak hutsaltzeko; izan ere, Nafarroako Ikus-entzunezkoen Kontseiluak ez-betetze larriak detektatu eta Nafarroako Parlamentuan salatu ditu, lizentzia ematerakoan haiek beren gain hartutako betekizun eta betebeharrei dagokienez.

**Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da herritarrak artatzeko bulego orokor bat jar dezan Tuteran.**

*OSOKO BILKURAK ONETSIA*

Nafarroako Parlamentuko Osoko Bilkurak, 2009ko otsailaren 26an egindako bileran, ondoko erabakia onetsi zuen: "Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da herritarrak artatzeko bulego orokor bat jar dezan Tuteran."

Legebiltzarreko Erregelamenduko 113. artikuluan ezarritakoa betez, aipatu erabakia Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut.

Iruñean, 2009ko martxoaren 3an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

**Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da herritarrak artatzeko bulego orokor bat jar dezan Tuteran**

Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du herritarrei zerbitzu emateko bulego orokor bat jar eta abiaraz dezan Tuteran, zioen azalpenean azaldutako ezaugarriekin bat.

**Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Vinsak sustatu edo kudeatzen dituen etxebizitzaren alokairuaren prezioa eskatzaileen errenta-ahalmenaren arabera ezar dezan.**

*OSOKO BILKURAK ONETSIA*

Nafarroako Parlamentuko Osoko Bilkurak, 2009ko otsailaren 26an egindako bileran, ondoko erabakia onetsi zuen: "Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Vinsak sustatu edo kudeatzen dituen etxebizitzaren alokairuaren prezioa eskatzaileen errenta-ahalmenaren arabera ezar dezan."

Legebiltzarreko Erregelamenduko 113. artikuluan ezarritakoa betez, aipatu erabakia Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut.

Iruñean, 2009ko martxoaren 3an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

**Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Vinsak sustatu edo kudeatzen dituen etxebizitzaren alokairuaren prezioa eskatzaileen errenta-ahalmenaren arabera ezar dezan**

1. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du eskatzaileen errentari zuzenean eta nagusiki lotutako baremo bat aplikatu dezan, Vinsak nahiz beste edozein administrazio publikok sustatutako edo kudeatutako alokairuzko etxebizitzaren prezioa ezartzean.

2.- Alokairuaren prezioa erregelamendu bidez arau dadin Ondorio Askotarako Errenta Adierazle Publikoa (IPREM) oinarri gisa hartuko duen baremoren bidez, eta prezio horrek inolaz ere ez dezala gainditu eskatzaileak eskura duen errentaren ehuneko 30.



**Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da bidezubi berri bat eraiki dezan Isoko mendatearen hegoaldean, gaur egun Orradre-Napaleko bidegurutzean dagoen zubiaren ordezt.**

*OSOKO BILKURAK ONETSIA*

Nafarroako Parlamentuko Osoko Bilkurak, 2009ko otsailaren 27an egindako bileran, ondoko erabakia onetsi zuen: "Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da bidezubi berri bat eraiki dezan Isoko mendatearen hegoaldean, gaur egun Orradre-Napaleko bidegurutzean dagoen zubiaren ordezt."

Legebiltzarreko Erregelamenduko 113. artikuluan ezarritakoa betetz, aipatu erabakia Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut.

Iruñean, 2009ko martxoaren 3an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

**Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da bidezubi berri bat eraiki dezan Isoko mendatearen hegoaldean, gaur egun Orradre-Napaleko bidegurutzean dagoen zubiaren ordezt.**

Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du bide-zubi berri bat eraiki dezan Isoko mendatearen hegoaldean, gaur egun Orradre-Napaleko bidegurutzean dagoen zubiaren ordezt.

Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du ezaugarri teknikoetan jaso dadin zubi horretara bi aldeetatik sartzeko bihurguneen zuzenketa, zubi hori bihurguneen sarbideraino aurreratuz.

**Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da azterlan eta hausnarketa bat egin dezan eta Parlamentura igor dezan, hutsik dauden etxebizitza eraikiak babes ofizialeko etxebizitzaren araudian sartzeari buruz.**

*OSOKO BILKURAK ONETSIA*

Nafarroako Parlamentuko Osoko Bilkurak, 2009ko otsailaren 27an egindako bileran, ondoko erabakia onetsi zuen: "Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da azterlan eta hausnarketa bat egin dezan eta Parlamentura igor dezan, hutsik dauden etxebizitza eraikiak babes ofizialeko etxebizitzaren araudian sartzeari buruz."

Legebiltzarreko Erregelamenduko 113. artikuluan ezarritakoa betetz, aipatu erabakia Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut.

Iruñean, 2009ko martxoaren 3an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

**Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da azterlan eta hausnarketa bat egin dezan eta Parlamentura igor dezan, hutsik dauden etxebizitza eraikiak babes ofizialeko etxebizitzaren araudian sartzeari buruz.**

Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du hiru hilabeteko epean analisi eta hausnarketa bat egin eta Parlamentura ekar dezan, eraikita eta hutsik dauden etxebizitzak babes ofizialeko etxebizitza bihurtzeko aukerei buruz.

**Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da beharrezkoak diren zuzemenak eta negoziazioak egin ditzan Audenasarekin, Imarkoaingo bidesari-postua tokiz aldatzeko eta N-121 errepideko bidegurutzetik gorago jartzeko.**

*OSOKO BILKURAK ONETSIA*

Nafarroako Parlamentuko Osoko Bilkurak, 2009ko otsailaren 27an egindako bileran, ondoko erabakia onetsi zuen: "Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da beharrezkoak diren zuzemenak eta negoziazioak egin ditzan Audenasarekin, Imarkoaingo bidesari-postua tokiz aldatzeko eta N-121 errepideko bidegurutzetik gorago jartzeko".

Legebiltzarreko Erregelamenduko 113. artikuluan ezarritakoa betez, aipatu erabakia Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut.

Iruñean, 2009ko martxoaren 3an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

**Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da beharrezkoak diren zuzemenak eta negoziazioak egin ditzan Audenasarekin, Imarkoaingo bidesari-postua tokiz aldatzeko eta N-121 errepideko bidegurutzetik gorago jartzeko**

Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du beharrezkoak diren zuzemenak eta negoziazioak egin ditzan Audenasarekin, Imarkoaingo ordainlekua tokiz aldatzeko, N-121 errepidearen eta Izarbeibarko sarbidearen arteko bidegurutzetik gorago hain zuzen ere, hartara saihesbide moduan erabili ahalko baita bideune hori guztia.

**Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da lan prekarietatearen aurkako eta enpleguaren kalitatearen aldeko plan bat presta dezan gizarte zerbitzuen sektorerako.**

*OSOKO BILKURAK ONETSIA*

Nafarroako Parlamentuko Osoko Bilkurak, 2009ko otsailaren 26an egindako bileran, ondoko erabakia onetsi zuen: "Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da lan prekarietatearen aurkako eta enpleguaren kalitatearen aldeko plan bat presta dezan gizarte zerbitzuen sektorerako". Horren jatorria da Nafarroa Bai parlamentu-taldeak aurkeztutako mozio bat, 2008ko urriaren 17ko 90. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratua.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 113. artikuluan ezarritakoa betez, aipatu erabakia Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut.

Iruñean, 2009ko martxoaren 3an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

**Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da lan prekarietatearen aurkako eta enpleguaren kalitatearen aldeko plan bat presta dezan gizarte zerbitzuen sektorerako**

1. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du, Nafarroako Foru Komunitateko Gizarte Zerbitzuen I. Plan Estrategikoan jasotzen denez, Nafarroako Gizarte Zerbitzuen I. Kalitate Planean neurri zehatzak aurreikus ditzan gizarte zerbitzuen arloko enpleguaren kalitateari buruz.

2. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du probintzia arloko hitzarmen marko bat susta dezan, aldean negoziazio autonomoaren bidez, egoitzetako eta hirugarren adineko pertsonentzako eguneko zentroetako lan-gileentzat.

**Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da datozen urteetan nabarmen handitu ditzan osasun sistema publikoaren arloko gastua eta inbertsioa finantzatzeko aurrekontu-baliabideak.**

*OSOKO BILKURAK ONETSIA*

Nafarroako Parlamentuko Osoko Bilkurak, 2009ko otsailaren 27an egindako bileran, ondoko erabakia onetsi zuen: "Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da datozen urteetan nabarmen handitu ditzan osasun sistema publikoaren arloko gastua eta inbertsioa finantzatzeko aurrekontu-baliabideak". Horren jatorria da Ion Erro Armendáriz jaunak aurkeztutako mozio bat, 2008ko urriaren 17ko 90. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratua.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 113. artikuluan ezarritakoa betez, aipatu erabakia Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut.

Iruñean, 2009ko martxoaren 3an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

**Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da datozen urteetan nabarmen handitu ditzan osasun sistema publikoaren arloko gastua eta inbertsioa finantzatzeko aurrekontu-baliabideak**

Nafarroako Parlamentuak Espainiako Gobernua premiatzen du zehatz dezan osasun arloko gastu publikoari buruzko egoera makroekonomikoa hurrengo hamarkadarako, urte bakoitzeko bilakaera xehakatuta.

Egoera makroekonomiko horrek ondokoak jaso beharko lituzke:

1. Hamabosteko Europar Batasunean osasun publikoaren arlora bideratutako BPGaren ehunekoaren batez bestekoarekin bat etortzea heldu den hamarkadan.

2. Osasun arloko per capita gastu publikoa handitzea eta arlo horretan Espainiako autonomia erkidegoetan lehen postua berreskuratzea.

3. Programa handien eta aurrekontuetako kapituluaren bilakaera zehatza.

**Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Foru Lege proiektu bat igor dezan, zeinean beharrezkoak diren xedapenak jasoko baitira, Lehendakaritza, Hezkuntza eta Gizarte Ongizateko departamentuen mende lan egiten duten administrazio osasun arloko diplomatu finko guztiak, 8/2008 Foru Legetik kanpo geratu zirenak, bertan sar daitezten.**

*OSOKO BILKURAK BAZTER UTZIA*

Nafarroa Bai parlamentu taldeak ondoko mozioa aurkeztu zuen: "Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Foru Lege proiektu bat igor dezan, zeinean beharrezkoak diren xedapenak jasoko baitira, Lehendakaritza, Hezkuntza eta Gizarte Ongizateko departamentuen mende lan egiten duten administrazio osasun arloko diplomatu finko guztiak, 8/2008 Foru Legetik kanpo geratu zirenak, bertan sar daitezten".

Legebiltzarrak 2009ko otsailaren 26an egindako Osoko Bilkuran, erabaki zuen aurkeztutako mozioa baztertzea. Mozio hori 2008ko urriaren 10eko 87. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2009ko martxoaren 3an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

## **Nafarroako Foru Eraentza Berrezarri eta Hobetzeari buruzko Lege Organikoa aldatzeko oinarriak aztertu eta onesteko lan-taldea.**

### *FORU ARAUBIDEKO BATZORDEA BATZORDEAK BAZTER UTZIA*

Foru Araubideko Batzordeak, 2009ko otsailaren 25an egindako bileran, erabaki zuen baztertzea Nafarroa Bai parlamentu-taldeak aurkezturiko eskaera, Nafarroako Foru Eraentza Berrezarri eta Hobetzeari buruzko Lege Organikoa aldatzeko

oinarriak aztertu eta onesteko lan-taldea sortzekoa.

Iruñean, 2009ko otsailaren 26an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda